

## KOSTUEN EGITURA

Kostuen egitura edozein proiektu aurrera ateratzeko beharrezkoak diren hainbat gastu dira. Ezaugarri desberdinak dituzte, hala nola; kostu finkoak, kostu aldagarriak, eskala-ekonomiak, hedapen-ekonomia...



### MANDEKOn KASUAN:

Edozein negozioetan bezala, MANDEKOn ere hainbat kostu izango genituzke proiektua aurrera atera ahal izateko.

Kostu finkoekin hasita, produktua hainbat dendatan saldu behar dugunez, bertan produktua ikusgai ipintzeko hainbat modelo beharko genituzke. Hau lirateke gure kostu finko bakarra. Beste guztiak, aldiz, gure salmenta kopuruaren arabera izango dira.

Kostu aldagarrietan, ia gure kostu guztiak hartuko zuten parte. Alde batetik, produkzioa aurrera eramateko behar ditugunak izango genituzke, salmenta-bolumenaren arabera. Hemen, termoplastikoa sartu genezake, hau baita gure zorroak produzitzeko oinarria. Honekin batera, beharrezko pinturak ere erosi beharko genituzke diseinuak egiteko.

Bestalde, gure proiektua beste batzuen lokalean eramango dugunez aurrera, eta bertako langileek ere produktuaren salmantan lagunduko digutenez, gure irabazien % 45a eman beharko genien.

Bestalde, guraizeak, arkatzak, berogailua eta bestelakoak guk jarriko genituzkeenez, ez genuke ezer ez ordaindu beharko hauengatik.

Proiektuak ez du inbertsio handirik eskatzen, baina egia da hasiera batean aurreko guztiak guk geuk jarritako dirutik ordaindu beharko genituzkeela. Hala ere, inbertsioko dirua erraz bereskuratzeari aurreikusten dugu.

Hurrengo taulan ageri dira zehatzago kostu guztiak, hilabete bateko kostuak:

KOSTUAK	PREZIOA	KANTITATEA	AZALPENA
Termoplastikoa	11,77€	250m	Kontrol bakoitzak 15cm-ko gutxi gorabeherako luzeera du, beraz, printzipioz 1000 mandu inguru egin ditzakegu kantitate honekin.
Pintura	25,50€	0,75litroko 8 bote	Beharrezko diseinuak egiteko ez dugu pintura gastu asko aurreikusten, beraz, hilabetean 8 poterekin nahikoa litzatekeela uste dugu.
Kontrol modeloak	15€	10 modelo	Hauek, gure produktua aurkezteko balioko digute, hauetan gure zorroak jarritz.
Eman beharreko %45a	153€ (gutxi gorabehera, saldutakoaren araberakoa baita)	Gure proiektua saltzen den denda bakoitzari.	Gure produktua jada existitzen diren dendetan saldu behar dugunez, hauek gure irabazien zati bat eraman beharko lukete. Taula honetan agertzen dena aurreikusten ditugun diru-sarrerak

			kontuan hartuta kalkulatu dugu.
GUZTIRAKO KOSTUA	190,27€		

HASIERAKO INBERTSIOA: 52,27€.

Diru-sarreren taula egin ondoren, inbertsio hau erraz berreskuratuko dugula uste dugu. Salmentak espero bezala baldin badoaz eta proiektuak espero bezala funtzionatzen badu, hilabeteen estali ahalko genuke inbertsio hau.